

Bilbon, 2000.eko urtarrilaren 28an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, euskaltzainburuordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
J. L. Davant,
P. Charritton,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
B. Oihartzabal,
F. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi
eta A. Urrutia euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
kudeatzailea.

2000.eko urtarrilaren 28an, Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskaltzaindia bere hileroko batzarra egiteko. Goizeko hamarrak eta erdietan eman zaio hasiera bilkurari. Alboko zutabeetan jasotzen dira batzarrean parte hartu duten euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute Miren Azkaratek, P. Charrittonek, J. M. Lekuonak eta Pello Salaburuk.

Aurreko agiria onartzea

Inork ez du oharrik egin eta, horrenbestez, onartutzat eman da aurreko hileko batzar agiria.

Euskaltzainburuaren hitzak

Antonio Zavalaren arreba hil dela eta Euskaltzaindiak doluminak ematea eskatu du euskaltzainburuak. Hala onartu da.

Bestalde, zorionak eman nahi izan dizkie Aurelia Arkotxa andreari tesiak eta ikerketak zuzendu ahal izateko legez behar den baimena lortu duelako, Manu Lopez Gaseniri, euskaratutako haur literaturaz berrikitan defenditu duen tesiagatik, eta Ch. Videgaini, katedrako bidea irekia duelako jadanik.

Eskuartekoak

Eskuartekoetan, lehenbizi BBK-k babesten dituen aurtengo Azkue literatur sarien berri eman zaie euskaltzainei. Sarion aldarrikapena eta banaketa ordu batean egingo da egoitzan bertan.

Bestalde, G. Bähr euskaltzalearen mendeurrena dela eta, Legazpiko Udalak argitara duen egutegia eskuratu zaie euskaltzainei.

J. A. Aranak BBV fundazioko M^a Luisa Oihartzabal andreari *Hiztegi Batua* dela eta egindako bisitaren berri eman du.

Azkenik, batzar gelan erakusgai jarri den Sabino Aranaren erretratuaren xehetasunak eman zaizkie euskaltzainei: Asartaren jatorrizkoaren gainean Ciga pintoreak egindako kopia dela eta modu onean eskuratzeko aukera izan duela Euskaltzaindiak.

Hizkuntza arauak

Zabal-zuzter hitz zerrenda onartzea

X. Kintanak aurkeztutako oharren azterketari ekin dio batzarrak lehenbizi.

Aurreko zerrendan *sifilis* hitza, forma horretan, onartu zen. Baina, ohargilearen iritiz, hitz horri ez dagokio amaieran *-s-rik*. Hala onartu da: *sifili*, hortaz.

Zadorlari hitzari *Zah.* oharra barik *g.g.e. h. idazkari* ezartzea onartu da.

Zangurru-ren sarreraz baliatuz, ohargileak berriro ere *txangurro*-ren aldeko apustua egin nahi du. J. San Martinek dio hori erabakitzeko Bizente Lafitte-ren hiztegiara jo behar litzatekeela. Nolanahi ere, kontua dagoeneko erabakia dagoenez, bere horretan uztea erabaki da. Izan ere, dauden datuak *txangurru*-ren aldekoak omen dira. Hortaz, ez da Kintanaren oharra onartu.

Zaran sarreran ematen den azalpena baino egokiagoztat dauka ohargileak 'saski biribil eta handia' bezalako bat. 'Saski mota' barik 'saski handia' ezartzea onartu da adiera argitze aldera.

Zela hitzari 'zaldiaren gaineko jarlekua' gehitzea onartu da, baina ez da onartu, ohargilearen proposamenaren kontra, 'nola' aditzondoaren baliokidetzat ematea bigadera batean.

Zelebratu hitza zerrendatik kentzea onartu da. Bigarren itzulian sartuko da, behar diren ohar guztiekien.

Zepelin ala *zeppelin* behar duen bozkatu da. Lehenbiziko forma onartu da: hamar boto hiruren kontra. Beraz, zerrenda dagoen-dagoenean utzi da.

Zer sarreran, lehenbiziko balioa argitzeko, adibide egokia eskatzen du ohargileak. *Zerk ikaratu zaitu?* erantsiko zaio.

Zerrama sarrera aurreko bileran onartutakoaren arabera zuzenduko da: *txerrama* hitzari emango zaio lehentasuna. *Zerrikume* hitzarekin ere gauza bera egingo da.

Zertifikatu sarreran onesten diren *ziurtagiri* eta *sinestamendu* hitzen ondoan *egiaztagiri* hitzari ere leku egitea proposatzen du ohargileak. Bozkatu da eta hamar boto agertu dira gauzak dauden bezala uztearen alde. Hala onartu da, hortaz.

Zertako sarreran, erabilera eremua markatzeko, *Ipar.* eta *Naf.* eranstea onartu da.

Zertan hitzari, gramatika kategoria gehituko zaio: izena dela esango da. Horrela aski argi gelditzen dela iritzi diote euskaltzainek.

Zesto hitzari, ohargilearen proposamena onartuz, *Heg.* eta *Herr.* oharrak gehituko zaizkio.

J. San Martinek, ahoz, *zesura* hitzaz galde egin du. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Zezin hitzaren ordez *zezina* nahiago luke Kintanak. Lekukotasunen arabera, *zezina* litzateke nagusi. Horrenbestez, zerrenda dagoen bezala uztea onartu da.

Zigilu hitzari adierak eranstea onartu da: **zigilu** 1. *erregeren zigiluarekin*; 2. (gutu azaletakoa). Eta *seilu* sarrerari, *Heg.* oharraz gainera, ‘zigilua’ adiera gehituko zaio.

Zilarbizi hitzari “g.g.e.” oharra eransteko eskaria ez da onartu. Hitz horrek tradizio handia bide du.

Zimino sarrera aldatzea onartu da, dagoeneko erabakitakoaren arabera. *Ipar.* ‘tximinoa’ ezarriko da.

Zirin hitzaren balioaz eztabaidatu da ondoren. Azkenean, honela gelditu da sarrera: **zirin** 1 iz. ‘hegaztien gorotza, gorotz mehea’; 2 izond. batez ere *Bizk.* ‘zirika-tzailea’.

Zirkunzidatu hitzari “g.g.e” oharraren ordez “zah.” ezarriko zaio, gainerako guztia lehengoan utziz.

Zirrara-ren azpisarrera gisa *zirrara eman*, *zirrara sortu* bezalakoak ematea ez da onartu.

Zirto hitzaren adiera honela ematea onartu da: ‘erantzun zorrotza eta errimaduna’.

Zita-ren bigarren adiera bat (‘aipua, aipamena’) eranstea ez da onartu.

Zizalkaka ez da onartu. Eta *zizi-paza* bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Zoriondu sarrerari “g.e.” oharra ezabatuko zaio eta honako adiera hau duela esango: ‘zorionak eman, zorionak esan’. Bide batez, P. Goenagak *zorionak* hitzari leku egitea proposatu du, azpisarrera gisa. Onartu da proposamena. Honela emango da azpisarrera hori: **zorionak** 1 interjek.; 2 iz. ‘goresmenak’. (*gaur nire zorionak dira** e. *gaur nire urtebetetzea da*).

Zoru-ren inguruan eztabaida luzea piztu da. Ohargileak *lurra* eta *behea* edo *behearen gaina* eta abar bereiztea proposatzen du. Ez da onartu proposamena eta, beraz, gauzak zeuden bezala utzi dira.

Zuku hitza dela eta, gauzak zehaztasun handiagoz erabiltze aldera, *laranja-zukua* ere, adibide gisa, eranstea onartu da.

Ondoren, Andres Iñigo jaunaren oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak. Iñigok aditzera eman du zenbait laguni Nafarroan erabiltzen diren hitzei buruzko oharrak egiteko eskatu diela eta z- letratik hasi direla hain zuzen. Horiexek dira euskaltzainek oraingoan mahai ganean dituztenak.

Onartu da *zafra*, *zangar* eta *zango-motz* hitzei *Naf.* oharra gehitzea. *Zafratu* hitza, berriz, bigarren itzulirako uztea erabaki da, *zango-makur*, *zango-mehe* eta *hanka-mehe* bezala.

Naf. oharra gehitu zaie honako hitz hauei ere: *zanpa-zanpa*, *zompaka*, *zompako*, *zompaldi*, *zapatu*, *zare*, *zerendako*, *zingil*, *zintzilika*, *zirtaka* eta *ziztako*-ri.

Zanpateko sartzea ere onartu da, ‘kolpea’ emanaz adiera gisa eta *Naf.* oharrik gabe.

Zanpantzar hitza argitzeko 'inauterietako lastozko irudia' ezarriko zaio adieratzat.

Zarta-1 hitzari ere *Naf.* oharra gehitzea onartu da, 'masailekoa' adiera ez ezik 'ipurdikoa' ere emanaz.

Zanpatu-ri bigarren adiera bat eranstea proposatzen du ohargileak: 2 *Naf.* 'jo, jipoitu'. Onartu da, baina beste hurrenkera batean emanaz adierok: 1 'jo, jipoitu'; 2 *du* aditza *Gip. g.er.* 'zapaldu'.

Zapaldi, berriz, *Ipar.* eta *Naf.* dela esango da.

Buru-zare bigarren itzulirako utzi da. Zerrendan ageri den *zarrasta* 'urradura' hitzaren ondoan ohargileak agerrarazi nahi lituzkeen *zarrata*, *zarrataka*, *zarrazta* eta *zarraztako* hitzak ere bigarren itzulirako utzi dira.

Zehar-haize hitzari leku egitea ontzat eman da, 'ipar-mendebaldeko haizea' adiera emanaz.

Zimizta dela eta, ez aipatzea erabaki da baina bai *ximixta*: *ximixta* *Lap.* eta *Naf.* 'tximista'.

Zirta sarrera zuzendu egin da *Ipar.* eta *Naf.* ezarriz.

Zorrizu eta *kakazu* hitzak sartzea onartu da, biak *Ipar.* eta *Naf.* oharrez horniturik. *Zoldazu*, berriz, bigarren itzulirako utzi da.

Eta honenbestez, ordu batean, bilera eten egin da Azkue literatura sariak banatzeko.

* * *

Arratsaldeko saioari hiru eta erdietan eman zaio hasiera, Andres Urrutia jaunaren oharra eztabaidagai harturik.

Zabaltoki eta *zador* hitzak ez dira zerrendarako onartu.

Zahar hitzaren azpisarrerara gisa *zahar-hitz* sartzea onartu da, honako adibide hau daramala: *zahar-hitzak*, *zuhur-hitzak*.

Zaindegi hitza sartzeko proposamena ontzat eman da.

Zaldiño hitza sartu ala ez bozkatu da. Sei euskaltzain agertu dira sartzearen alde eta lau kontra. Sartzea erabaki da.

Zapasalto ez da onartu, lekukotasun faltaz.

Zaramatika ere, *kalamatrika* bezala, bigarren itzulirako uztea egokiago ikusi da.

Zarrastel eta *zarrastelkeria* ere bigarren itzulirako utzi dira.

Zatibitu sartzea onartu da.

Bigarren itzulirako utzi dira, berriz, *zausta-zausta*, *zelulanitz*, *zenbatetsi/zenbatetspen* eta *zerrepel/zerrepeldu*.

Zergaldi ontzat eman da.

Zilipurdi eta *zilipurdika* hitzak ere onartu dira: **zilipurdi** iz. 'itzulipurdia'.

Ziro hitza ez da onartu.

Zirrosi, alfabeto hurrenkeraren arabera dagokion lekura eramango da.

Zirrin-zarran bigarren itzulirako utzi da.

Zuhurtziagabekeria hitza sartzea ez da onartu, bai, ordea, *zuzkitu* eta *zuzkidura*.

Ondoren, eztabaidarako utziak ziren hitzak aztertu dira.

Zigarreta/zigarro bikotea formaz eta esanahiz bereizirik eman ala ez bozkatu da. Bereizketa egitea onartu da: hamahiru boto izan dira horren alde.

Zitara/kitara auzia dela eta, hurrengorako argitasun gehiago eskatuko zaio UZEI-ri.

Zapatila hitzaren inguruko auzia honela ebatzi da: **zapatila** h. **txapin**.

Zapazto hitzari honako ohar hau erantsiko zaio: *Bizk.* ‘narratsa’.

Zapelatz forma onartu da. Adiera argitzeko (*buteo sp.*) oharra ezarriko zaio.

Zapo sarrera honela uztea erabaki da: **zapo** 1 ornodun urlehortarra (*Bufo*); 2 arrai-na (*Lophius*). *Apo* hitzean, berriz, *Ipar.* eta *Naf.* ‘zapoa’ ezarriko da.

Zarratu hitzari buruz *Bizk.* eta “du aditza” dela esango da. Adiera, berriz, ‘itxi, bildu’ gisa emango da.

Zerratu-rentzat honako hau erabaki da: **zerratu** 1 *Ipar.* eta *Naf.* ‘itxi’; 2 ‘trabesa, tratua egin’.

Zarrarazi hitza zerrendatik ezabatzea onartu da.

Zartagin/zartagina eztabaida lehenbiziko formaren alde erabaki da. *Zartagin* forma jasoko da zerrendan.

Ze sarrerari buruzko erabakia honako hau izan da: **ze** Lgart. 1 h. **ezen**, **zeren**; 2 h. **zer**, **zein**.

Zerrarrain ala *zerra-arrain* auzia bigarrenaren alde ebatzi da: *zerra(-)arrain* gisa jasoko da, horrenbestez, zerrendan.

Zinema/zine bikotearen aurrean lehenbizikoari lehentasuna ematea onartu da. Beraz, **zine** h. **zinema** gisa emango da.

Zurgatu/xurgatu auzia otsailerako utzi da, datu gehiago eskuratu ondoren erabakitzeko.

Zurikin forma hobetsi da, bestalde, *xurikin* eta *txurikin*-en kaltetan.

Eta, horrenbestez, oraindik zintzilik dauden kontuak gorabehera, zerrenda amaitzat eman da.

Zerrenda osoaren berrikustea dela eta, Ibon Sarasolak zenbait ohar egin ditu hurrengo bilerari begira: alde batetik, *udal-barruti* delakoaren eztabaida dago; bestetik, hala dagokien hitzak *Ipar.* eta *Naf.* oharrez hornitzea; *Nart.* oharra duten hitzen zerrenda onartzea (honi buruzko galbaheketa Sarasolak berak egingo du); eta azkenik, A-letraren azken argitaldia izango dena onartzea.

Kontu hauei dagozkien langaiak dagoeneko eskuetan dituzkete euskaltzainek. Beraz, oharrak, beti bezala, hilaren hogeirako aurkeztu behar dira.

Euskaltzaindiak Hiztegi Batu honekin eskubete lan duenez, euskaltzainburuak ohartarazi du otsaileko bilkura bi egunez luzatu beharko dela.

Eta besterik gabe, arratsaldeko seietan amaitutzat eman da bilkura.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *